



2024SPLE0004
4.bilera: OHIKOA 2024/03/21

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/04

EGUNA: 2024/03/21

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:40

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagozkion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion 2024ko otsailaren 29an egindako osoko bilkuraren akta, onar dezan. Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta ez zen ezer adierazi. Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko otsailaren 29an egindako osoko bilkuraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen EH Bildutik bazituztela hainbat zalantza:

- 2024/92 Dekretua: «*Bertan behera uztea arkitekto tekniko baten izendapena. Z.A.B.(AD 130/2021)*» Horren harira galdetu zuen Itziarko espedienteen kudeaketa nola egingo diren eta zer aurreikuspen ote dagoen enpresa parkeko espedienteen kudeaketarako.

Alkateak erantzun zion arkitekto tekniko horren bajaren ondoren, bi arkitekto tekniko eta arkitektoa gelditzen direla zerbitzuan, baita arkitekto aholkularia ere. Itziarko industrialdeko espedienteen kudeaketaz arkitektoa arduratuko dela, eta alde egin duen arkitekto teknikoak Itziarren egiten zuen lana zerbitzuko beste arkitekto tekniko batek egingo duela, bere lanaldiaren %50a horretara bideratuz.

Gilen Garciak galdetu zuen ea dagoen atzerapenarekin nahikoa izango dela aurreikusten ote den, eta alkateak erantzun zion uste dutela orain dagoenarekin aurrera egin beharko dela eta uste dutela egin daitekeela.

- 2024/95 Dekretua: «*Simon Berasaluze plazako udal-bulegoetarako lokala egokitzeko exekuzio-proiektua.*» Dekretu hori otsailaren 28koa dela eta galdetu zuen ea zergatik ez zitzaien horren berri ema martxoko Lurraldetasun batzordearen bileran.

Alkateak erantzun zion otsailaren 24ko Lurraldetasun batzordearen bilera eman zitzaiela horren berri esanez Simon Berasaluze plazako lokaletara Udaltzaingoa eta Geoparkearen gerentzia baino ez zirela lekualdatuko. Horren ondoren ikusi zutela proiektuarekin aurrea jarraitu behar zela, eta aurreko proiektua idatzi zuen enpresarekin harremanetan jarri zirela proiektu berri bat egiteko prest ote zeunden jakiteko, eta baiezkoa jaso ondoren, enkargua egin zitzaiela, proiektu berriak 7.000 euroko kostua izango duela, ekainerako prest egongo dela, eta proiektua eduki bezain pronto Lurraldetasun batzordean aurkeztuko dutela.

Gilen Garciak azaldu zuen otsailaren 24ko Lurraldetasun batzordearen bilera aukera hori komentatu zela, baina ez zela aurkeztu erabaki bat bezala. Lokal hori eta Udalak dituen beste lokalen inguruan hitz egin zela, baina ez zela esan hori horrela izango zenik, eta, azken aldiaren gertatzen ari den bezala, erabakiak horrela ere hartu daitezkeela, Alkatetza dekretuen bidez politika egin daitekeela, eta Udal gobernuak horrela egin zuela. Kontua dela, 2023 abenduaren 11n, EH Bildu udal taldeak eskaera bat egin zuela hainbat puntuekin, eta azken puntuan, 6.enean, gai horri buruz ematen ari diren pausuen berri ematea eskatzen zen. Horren inguruan idatziz emandako lehen aipamena otsailaren 24ko Lurraldetasun batzordearen bilera horretan izan zen, eta alkateak sinatutako erantzun horren azken lerroan horrela jasotzen zen: "Udal gobernuak egon daitezkeen irtenbide desberdinak aztertzen eta baloratzen ari da, eta hauen gaineko informazio gehiago dugunean emango zaizue hauen berri". Kasu honetan ez da izan "informazio gehiago dugunean" baizik eta "erabakiak hartzen ditugunean edukiko duzue



2024SPLE0004
4.bilera: OHIKOA 2024/03/21

guztiaren berri" eta, hor, matiz txiki bat badago. Eskertuko dutela proiektuaren nondik norakoak ezagutzea.

Alkateak erantzun zion ekainean enpresak proiektua edo aurreproiektua aurkezten duenean izango dutela horren berri. Gilen Garciak erantzun zion ea informazioa eginda dagoenean jasoko ote duten, hau da ea lehenago ez ote duten berririk izango, eta alkateak erantzun zion honezkero bideratuta dagoela, espazioaren banaketa izango dela bi gorputz Udaltzaingorako, eta beste bat Geoparkearen gerentziarako. Zumaiatik etorri zen gerentzia bertara eramateko proposamena ere komentatu zietela eta horri irtenbidea eman behar zitzaiola, eta hiru zerbitzuak sartzeko toki nahikorik ez dagoela ere behin baino gehiagotan azaldu dutela, eta euren ustez erabakia datu objektiboetan oinarrituta dagoela.

Jon Riañok azaldu zuen gomendatzen ziola Lurraldetasun batzordearen bilera horren akta berriro ere irakurtzea, erabakia hor bertan agertzen baita.

Gilen Garciak azaldu zuen, bere ustez, etengabean saiakera bat egiten dutela itxura emateko erabakiak elkarrekin adostuko hartuko balira bezala, baina kontua dela dekretuak onartu eta gero izaten dutela gauzen berri. Informazioa ez dela partekatzen, eta galdetuko ez balute dekretuen berri izan arte ez zutela izango inolako informaziorik, eta euren erabakitzen dutela nola egin.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez ziren egon ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, Tokiko Gobernu Batzordearen bileren maiztasuna aldatzea, eta bilerak publikoak ez izatea.

Alkateak azaldu zuen 2024ko martxoaren 11n Antolakuntza batzordearen bileran onartu zela Tokiko Gobernu Batzarraren bileren maiztasuna aldatzearen eta bilerak horiek publikoak ez izatearen aldeko irizpena, baina aldaketa txiki bat proposatu nahi dutela. Erabaki zela Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak osoko bilkuraren ohiko bileren egun berean izatea, 17:00tan, baina, iruditzen zaiela, horrela eginez gero, ez dela oso eraginkorra, eta proposatzen duela bilera horiek osoko bilkuraren ohiko bileren egun berean izan beharrean astebete lehenago egitea eta, horrela, osoko bilkuratik pasatu behar diren gaiak hobeto aztertu ahal izateko

Gilen Garciak galdetu zuen ea oposizioentzat lekurik aurreikusten duten Tokiko Gobernu Batzarrean, eta alkateak ezetz erantzun ondoren, EH Bildu taldeak abstenitu egon zela adierazi zuen.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko zazpi (7) botoekin eta sei (6) abstentziorekin, onartu

zuen, Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak osoko bilkuraren ohiko bileraren baino astebete lehenago izatea, 17:00tan, eta bilera horiek publikoak ez izatea.

5.- Berrestea, hala badagokio, 2023ko martxoaren 1ean Debako Udalaren eta Debegesaren artean sinatutako hitzarmenaren gehigarria.

Alkateak azaldu zuen 2023ko martxoaren 1ean Debako Udalaren eta Debegesaren artean hitzarmen bat sinatu zela Netx Funtsen kudeaketarako, eta gehigarri horretan zehazten direla proiektuak eta diru kopuruak ere. Antolakuntza batzordeak, 2024ko martxoaren 11n eginiko bileran, aldeko irizpena eman zion, eta gehigarria berrestea osoko bilkurari dagokionez, aurkezten dela gaia.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen berrestea 2023ko martxoaren 1ean Debako Udalaren eta Debegesaren artean sinatutako hitzarmenaren gehigarria.

6.- Onartzea, hala badagokio, Eguneko Zentroko Araudia.

Alkateak azaldu zuen Gizarte Politikako batzordeak, martxoaren 14an eginiko bileran, araudia aldatzearen aldeko irizpena eman zuela. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako departamentuak emandako agindua betez Eguneko Zentroko araudia berritu egin dela, indarrean zegoen araudia osatu, eta araudi hori onartu zenetik indarrean sartu den araudiak ezarritakoa jasotzen dela.

Gilen Garciak adierazi zuen Gizarte Politikako Batzordearen irizpenean akats bat dagoela, partaideen artean Oihana Irusta Lazkano jasotzen baita bilera horretan egon ez zenean. Ez duela erabakiaren funtsa aldatzen, baina denek jakinaren gainean egon daitezzen azaltzen duela.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen Debako Eguneko Zentroko Araudiari hasierako onespina ematea.

7.- Onartzea, hala badagokio, 2020-2023 berdintasun plana luzatzea.

Gizarte Politikako batzordeak, martxoaren 14an eginiko bileran, berdintasun plana luzatzen aldeko irizpena eman zuela, planaren hainbat puntu garatu gabe gelditu direlako.

Edurne Aristik azaldu zuen batzordean galdetu zutela ez zutela erantzunik jaso eta, horregatik, galdetu nahi duela ea ba ote dagoen lanerako planik, hau da, pendiente gelditu diren ekintza horietatik zeintzuk burutuko diren eta zeintzuk ez.

Isidro Aristik erantzun zion aztertzen ari direla falta diren ekintzetatik zeintzuk egin daitezkeen eta zeintzuk ez, eta azterketaren ondoren jarriko direla bideak egiteko.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2020-2023 berdintasun plana urtebetez luzatzea.

8.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta CITA-Alzheimer fundazioaren arteko hitzarmena.

Alkatek azaldu zuen Gizarte Politikako batzordeak, martxoaren 14an eginiko bileran, hitzarmenaren aldeko irizpena eman zuela. Hitzarmena 2024 eta 2025 urtetarako izango dela, eta Udalarentzat izango duen kostua, urtero, 15.000 euroko izango dela, eta 2024ko gastuari aurre egin ahal izateko kreditu aldaketa bat onartu beharko dela, aurrekontuetan aurreikusi gabe zegoelako.

Aritz Larrañagak adierazi zuen EH Bildu udal taldeak aldeko botoa emango duela, batzordean ere



2024SPLE0004
4.bilera: OHIKOA 2024/03/21

horrela azaldu zutela, baina orain bost hilabete Gizarte Politikako batzordean hitzarmen horren buruz galdetu zutela eta batzordeburuak erantzun ziela hitz egingo zela, urtarrilaren amaieran onartu zirela aurrekontuak eta aurrekontuen negoziazioan eta bileratan ere aipatu zutela CITA-Alzheimerrekin zegoen hitzarmena berritzeko asmoa ote zegoen, eta aurrekontuan ez zela aurreikusi, eta harrigarria egiten zaila orain kreditu aldaketa bat egiteko proposamena egitea. Debako Udalak 2015-2019 agintaldian hasi zela lanean CITA-Alzheimer fundazioarekin, 2019-2023 agintaldian jarraitu zela kolaborazio horrekin, eta horregatik zituen hitzarmenak fundazio horrekin eta, horregatik, aurrekontuen negoziazioetan behin baino gehiagotan jarri zuten mahai gainean hitzarmen hau egiteko beharra eta aurrekontuetan jasotzeko beharra, eta harrigarria egiten zaiela aurrekontuak onartu eta bi hilabetera hitzarmena mahai gainean jartzea aukera egon zenean aurrekontuetan jasotzeko.

Alkateak adierazten du CITA-Alzheimerrekin zegoen hitzarmena 2023ko abenduaren 31n bukatu zela, ez zela inor harremanetan jarri horren luzapenari buruz hitz egiteko eta iritsi zela aurrekontuak aurkezteko momentua eta pentsatu zutela hitzarmena bertan behera gelditzen zela, eta otsailaren erdialdera CITA-Alzheimer-ko arduradun batek harremanetan jarri zirela esanez pasatu egin zitzaizela, berandu ari zirela, eta erantzun ziola ez zuela arazorik ikusten gaia beste modu batean aurrera eramateko. Horregatik aurten kreditu aldaketa baten bidez sartu beharko dela aurrekontuetan, bere ustez, denon adostasunarekin.

Aritz Larrañagak azaltzen du ados dagoela alkateak esandakoarekin, baina berak azaldu duen bezala, abenduaren 31n bukatzen zen hitzarmena, eurek azaroan planteatu zutela gaia batzordean, eta Udalak ere ahal zuela harremanetan jarri CITA-Alzheimer-koekin beraien zain egon gabe, eta hori dela batzordeburuari galdetu ziotena, eta orain kreditu aldaketa bat egiteko beharra dagoela, aurrez batzordeburuaren, edo alkatearen, bidez fundazioarekin harremanetan jartzeko aukera zegoenean, eta nahiz eta hitzarmena urtarrilean berritu, aurretik adostuta egon zitekeela eta aurrekontuetan aurreikusi. Eurek behin eta berriz aipatu zutela gai hori bai batzordean bai aurrekontuen negoziazio bileratan, baina ez dakiela entzun gorrarena egiten den edo ez den kontuan hartzen eurek esaten dutena, baina orain ikusten dela gastu hor beharrezkoa zela. Eurek alde daudela, baina adierazi nahi duela eurek hori aurreikusi zutela, jakinarazi zirela aurrekontutan sartzeko, baina ez zirela kasurik egin.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udalaren eta CITA-Alzheimer fundazioaren arteko hitzarmena.

9.- Onartzea, hala badagokio, garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa.

Alkatek azaldu zuen Gizarte Politikako batzordeak, martxoaren 14an eginiko bileran, aldeko irizpena eman ziola aldaketari. Proposatzen diren aldaketak oinarrien 3. eta 4. artikuluetan daudela, proiektuen betebeharrak jasotzen dituen 3. Artikuluan hau gehitzen dela: «*Aurkeztutako proiektuak gehienez 25 orri eduki beharko dute.*», eta, diruz lagungarriak diren gastuak arautzen dituen 4. Artikuluaren g) puntuan hau jasotzen dela «*Proiektuaren funtzionamendurako kostuak, ondasun suntsikorra erosteko eta proiektua garatzeko ezinbesteko gaineratu materialak,*

eskatutako diru laguntzaren % 15eko mugarekin.» eta puntu horretan esaldi hau gehitzea proposatzen dela: «Atal honen barruan garraio, janaria, dietak eta antzeko gastuak kontuan hartuko dira, baita telefonia gastuak ere.»

Aritz Larrañagak adierazi zuen Gizarte Politikako batzordean aldeko botoa eman zutela, baina oinarriak 2017an onartu zirela eta deialdiarekin batera ez zela bidali aldaketa horiek jasotzen duen testu eguneratua, hau da, gero boletinerara bidal behar dena, eta eskertuko zutela, hurrengotarako, onartu behar bada, plenoan bertan dokumentazio hori edukitzea eta ez 2017ko oinarriak.

Alkateak erantzuten dio irizpenean argi jasotzen direla aldaketak, baina hurrengotarako, kontuan hartuko dutela iradokizuna.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa.

10.- Onartzea, hala badagokio, gizarte zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa.

Alkateak gaia azaldu zuen gai honek ere aldeko irizpena jaso zuela Gizarte Politikako batzordeak, martxoaren 14an eginiko bileran, eta kasu honetan proposatzen den aldaketa dela bazterketak arautzen dituen 3. oinarrian puntu hau gehitzea: «3.8 Aurrekontu ekonomikoa eta lagundu beharreko zenbatekoa eransten ez dituzten proiektuei, inolaz ere ezingo zaie diruz lagundu.»

Gilen Garciak adierazi zuen Gizarte Politikako Batzordearen irizpenen honetan eta aurreko bi puntuetako irizpenetan ere lehenago aipatu zuen akats bera dagoela, hau da partaideen artean Oihana Irusta Lazkano aipatzen da, bilera horretan egon ez zenean.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen gizarte zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa.

11.- Onartzea, hala badagokio, Deba-Palestina Herri Ekimenak aurkeztutako mozioa.

Alkateak Oihana Esnaola Deba-Palestina Herri Ekimeneko kideari eman zion hitza, eta horrek mozioa irakurri zuen.

«Dinamika honetara bildu garenok Palestinaren egoerari kezka bezala begiratzen diogun norbanakoak gara. Bat egitera eraman gaituen kezka hori herritar gehienek partekatzen dutela uste dugu. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, ezinbestekoa iruditzen zaigu Debako Udalak herritar gehienon kezka hori bere egin, eta egunez egun Israelgo Estatuak egiten ari den nazioarteko zuzenbidearen urratze larria salatu dezan.

Heriotza eta suntsipena dira nagusi Gazan eta jada Palestinako txoko askotan ere bai. Gaurdaino Israelgo gobernuak, bere armadaren bidez, 30.000 pertsona inguru hil ditu. Milaka pertsona zauritu, lekualdatu, eta okupazioaren ondorioz, ur, janari, erregai eta medikuntzarako hornidura faltaren eta deshidratazio larriaren ondorioz hiltzen ari dira. Israelgo soldaduek herri, auzo, azpiegitura asko suntsitu eta hondakin bihurtu ditu.

Ez dago bizi-aterpe segururik ihesean dauden milaka pertsonentzat. Euren lurraldean palestinar jendea preso edo errefuxiatua da, euren herriak heriotzakartzeia bilakatu dituelako israeldar genozidioak. "Israelgo ekintza genozidak" ez dira ehun egun hauetara mugatzen, baina, prozesu honetan, 75 urteko apartheid-a, definitzen joan da suntsidura, heriotza eta herri oso baten ukazioa. Historikoki egiaztatutako gertakari horien aurrean, gogoratu behar da Israelek etengabe urratu dituela Nazio Batuen ebazpenak. Azken hilabeteetako izugarrikeriaren neurriak, ordea, Israelgo okupazio militarren estrategia politikoa erakutsi



2024SPLE0004
4.bilera: OHIKOA 2024/03/21

digu: palestinar herriaren suntsidura. Urriaren 7tik aurrera palestinar herriaren aurkako genozidioak, ordea, oso jarrera konprometitan utzi du Nazioarteko Komunitatea. Nazioarteko Komunitateak nahiago izan du modu irmoan ez inplikatu eta pasiboki onartu herri palestinarren aurka Israelgo Estatuak gauzatzen ari den okupazio militarra.

Horregatik guztiagatik, martxoaren 21ean egingo den osoko bilkuran, Deba Udaleko alderdi politikoei honako hau onartu dezatela eskatzen diegu:

- 1. Deba Udalak irmotasun osoz arbuizatzen ditu Israelgo Estatuak Gazan zein Palestinako beste lurraldeetan egiten ari den ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak.*
- 2. Deba Udalak erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, eta Israelgo armada Palestinatik erabat erretiratzeko, hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adieraziz. Era berean, atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik.*
- 3. Deba Udalak Eusko Jaurlaritzari eta, honen bitartez, Europar Batasunari eskatzen dio, Palestinari beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko.*
- 4. Deba Udalak Europar Batasunari, Espainiako Estatuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko eta eraso militar horretatik erator daitezkeen errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Halaber, konpromisoa hartzen du harrera duina bermatuko duten espazioak eskaintzeko haur eta heldu palestinarrei.*
- 5. Deba Udalak irmo eskatzen dio Israelgo Estatuari nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.*
- 6. Deba Udalak bat egiten du Israelekiko bolkot, desinbertsio eta zigorrekin hau da, konpromisoa hartzen du Israelgo jatorria duten produktu baztertzeko eta Israelgo enpreekin kontrataziorik ez egiteko.*
- 6. Deba Udalak Larrialdi Humanitariorako dirulaguntza bat onartuko du, Gernika-Palestina elkartearen bidez, Palestinara bideratuko dena.*

Deban, 2024ko martxoaren 11 n

Deba-Palestina Herri Ekimena»

Alkateak galdetu zuen ea inork nahi ote zuen zerbait adieraztea, bestela bozkatu egingo zutela.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Deba-Palestina Herri Ekimenak aurkeztutako mozioa.

12.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

12.1.- Gilen Garciak azaldu zuen dekretuetan eta azken aldian aipatutakoaren harira, azkenengo aktan horrela jasotzen da:

«Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

8.1.- Gilen Garciak azaltzen du Lurraldetasun Batzordean EH Bilduk eginiko hainbat galderei astelehenerako erantzuna idatziz helaraziko zitzaiela agindu zietela, baina ez dutela ez mezurik ez erantzunik jaso, eta hori nabarmendu nahi duela. Ondoren Batzordean eginiko galderak gogoratzen ditu.

Alkateak esaten dio ez diola erantzun galdera guztien erantzuna oraindik ez duelako. Dakiena kontatuko diola:»

Eta hor aipatzen dira hainbat puntu, eta gero hau ere aipatzen da: *«Eta beste galderen erantzuna oraindik ez duela, eta galdera guztien erantzuna idatziz helaraziko diola»*

Egin nahi duen galdera ez dela alkateari zuzenduta, alkateak beti, edo ia beti, erantzun positiboa ematen diolako, eta, horregatik galdera idazkariarentzat da, ea nola berma dezake, EH Bilduko bozeramale gisa, informazio hori idatziz jasotzeko eskubidea, ba ote duen inolako bermerik konpromisoa hartzen bada eta aktan jasotzen bada. Zer epe ote dagoen. Bera aspertzen hasita dagoela dago etengabe pleno guztietan gai berdinarekin etorri behar izateagatik, horrela, jakin nahi duela maila juridikoan inolako bermerik ote duten informazio hori jasotzeko.

Idazkariak erantzun zion araudiak jasotzen duela galderaren muina Udalean kudeatutako espediente batean jasota baldin badago, alkateak bost eguneko epearen barruan erantzun behar duela, espediente hori ikusteko baimena eman ala ez. Galdera gai politiko baten buruzkoa bada, hor ez dagoela eperik, behintzat araudiak ez duela erantzuteko eperik zehazten.

Gilen Garciak azaldu zuen ez zekiela erantzun hori bere nahia asetzen ote duen, baina, hori horrela baldin bada, galdetu zuen nora jo beharko ote zukeen ikusten badu informazioa lortzeko eskubide hori urratzen ari dela. Idazkariak erantzun zion ez zekiela eta une horretan ezin ziola erantzunik eman,. Kontsultatu ondoren emango diola erantzunaren bat.

Bestalde, azaltzen du euren kezka handiena Amillagako jarduketa planarekin dutela, jakin nahi dutelako prozedura nola izango den. Badakiela Grupo Eibarrekoek bere txostena egin behar dutela, baina hortik aurrera prozedura nola izango den, ea eurekin partekatuko ote den, zeren eta ez bada eurekin partekatuko, EH Bilduren izenean, gaurdanik eskatzen duela hitzarmen bat sinatu beharko zela Grupo Eibarrekin konpromiso horiek hartu daitezten. Eurekin partekatuko bada, erabaki partekatua izango denez, uste duela bermatuko dela eskatzen duten hori.

Eta espedienteak kontsultatzekoaren harira, adibide gisa, azaltzen du otsailaren 28an, euren agintaldian sinatutako lau hitzarmen bidaltzea eskatu zuela.

Alkateak erantzun zion bidali zizkiola, eta beste espediente bat kontsultatzeko baimena ere bidali ziola, eta Gilen Garciak erantzun zion dagoeneko kontsultatu duela, oso baliagarria izan zela, baina bi astez egon behar izan zuela erantzunaren zain. Horregatik, aurrekoan esandakoa berriro ere esan beharrean dagoela: herriaren erdia ordezkatzeko dutela, beraiek ere lanean ari direla eta begirune handiagoa zor zaiela.

12.2.- Bilera amaitu aurretik alkateak testu hau irakurtzen du:

«Gaurko Osoko Bilkura amaitu aurretik, garrantzia duen gai bati heldu nahi diot. Pasa den martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Udalarari egin zitzaizkion akusazio batzuk argitu nahi ditut.

Alkate naizen aldetik, argi eta garbi adierazi nahi dut, bai nik eta bai gobernu-talde hau osatzen duten kide bakoitzak irmoki gaitzesten dugula indarkeria matxista; onartezina da



2024SPLE0004
4.bilera: OHIKOA 2024/03/21

hori zalantzan jartzea.

Erakunde gisa, prozedura argiak ditugu ezarrita. Argi eta garbi adierazi nahi dut indarkeria matxistaren biktimek ondoan izan gaituztela, eta etorkizunean ere hala izango gaituztela. Udal bezala laguntzeko prest izango gaituzte beti, justiziarako eta errekupeziarako urrats bakoitzean bidelagun.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dut udaletxeko eta nire bulegoko ateak beti irekita daudela. Deba eragile sozial, elkarte eta herritarrak entzun eta elkarrekin lan egiteko prest gaude. Elkarrekin egin behar dugu aurrera, bereizketarik gabe, indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterantz. Elkarlana funtsezkoa da bide horretan, eta gure konpromisoa berresten dugu, helburu horretara hurbiltzen gaituzten ekimenek gure babesa izango dute.»

Bestetik ez dagoenez, 19:40tan alkateak amaitutzat ematen du osoko bilkuraren bilera, gogoratu, martxoko osoko bilkuraren bileraren data aste bete aurreratu zela Aste Santua dela-eta.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberry Iñarra
Idazkaria

